

# GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN HERRITARREN PARTAIDETZA PROGRAMA 2024-2027



**GIPUZKOAKO**  
Foru Aldundia • Diputación Foral



HERRITARREN  
PARTAIDETZA



Erraz irakurtzeko  
testuak

# Aurkibidea

orrialdea

**Koordinazioa:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusia  
**Irakurketa Errazera egokitzapena:** Lina Ugarte Sauret eta Nerea Aizpurua Iraola (Lectura Fácil Euskadi-Irakurketa Erraza)  
**Maketazioa:** Estela Hernández Blanco

**Lege gordailua:** D-943-2024

Irakurtzen ari zaren dokumentua  
Herritarren Partaidetza Programaren testuaren  
Irakurketa Errazera egokitzapena da,  
herritar guztiei irakurketa eta ulermena errazteko.



Logo honek ziurtatzen du eskuartean dituzun materialak IFLAK (International Federation of Library Associations and Institutions) zehazturiko arauak betetzen dituela eta irakurketa zailtasunak dituzten pertsonentzat material egokia dela.  
Dokumentu hau berrikusi eta abalatu du Lectura Fácil Euskadi Irakurketa Errazak.

<b>Gobernantza diputatuaren hitzak</b> .....	5
<b>Ezagutu behar dituzun hitz garrantzitsuak</b> .....	7
<b>2024-2027 Herritarren Partaidetza Programa</b> .....	9
- Zer da programa hau? .....	9
- Zertarako behar dugu?.....	9
- Nork egin du programa hau? .....	10
- Nori zuzentzen zaio? .....	11
- Herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa: zer dira?.....	12
- Aldundiko partaidetza eredua .....	12
- Nola egin da programa? .....	13
- Programaren ezaugarriak eta balioak .....	14
- Nola egituratu da programa?.....	16
- Programaren helburuak, lan-ildoak eta ekintzak.....	18
<b>1. Ekintza komunitarioa</b> .....	18
<b>2. Erakundeak prestatzea</b> .....	21
<b>3. Partaidetzaren kalitatea</b> .....	24
<b>4. Trebakuntza eskaintzea</b> .....	26
<b>5. Komunikazioa eta hedapena</b> .....	28
- Programaren ebaluazioa eta kontu-ematea .....	30
<b>1. Eranskina:</b> Aldundiko departamentuek proposatutako partaidetza proiektuak .....	32
<b>2. Eranskina:</b> Herritarren Partaidetza Programaren egutegia eta lehentasun-mailak .....	34

# Gobernantza diputatuaren hitzak



Gipuzkoa hobea eraikitzen lagunduko digun tresna da programa hau.

Datozen 4 urteetan, Gipuzkoan partaidetza eta ekintza komunitarioa lantzeko behar ditugun oinarriak biltzen ditu.

Lurraldeko beste erakunde eta eragileekin egindako lan sakon eta partekatu baten emaitza da.

Programa hainbat urtetako ahalegin eta ikaspenetatik dator.

Gure lurraldean azken urteetan garatu ahal izan den kultura politikoaren eta lankidetzazko gobernantzaren emaitza ere bada.

Programa hau Gipuzkoako Foru Aldundiak 2023-2027 legealdirako onartu berri duen Plan Estrategikoarekin bat dator.

Izan ere, Plan Estrategikoak helburu du lurralde demokratiko, bidezko eta arduratsu bat eraikitzea eta programa honek bide horretan lagundu nahi du.

Beraz, Gipuzkoak datozen urteei begira, lankidetzazko, partaidetzazko eta ekintza komunitarioa bultzatzeko egin nahi duen jauzi berrian eragitera dator.

Programa sendo eta zabala da hau.  
Eta zehatza ere bada,  
behar eta eskaera konkretuei erantzuten dielako.  
Horregatik, potentzial eta indar handiko programa da.

Eskerrak eman nahi dizkizuet hauei guztiei:

- Programa hau osatzean parte hartu duzuen Aldundiko departamentu eta zuzendaritzetako kide guztiei.
- Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluko kideei, programan egin dituzten ekarpenengatik.
- Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusiaren arduradun eta lantaldeko kideei, programa egiteko prozesua gidatzeagatik.

Orain etaparik interesgarriena hasten da, bidea egitea.

Eta bide hori oinez egiten da.


Bide hori elkarrekin egin nahi dugu,  
herritarrekin eta lurraldeko eragileekin batera.

**Ekin diezaiogun bideari!**

**Irene Berasaluze**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gobernantza diputatua

# Ezagutu behar dituzun hitz garrantzitsuak



## **Ekintza komunitarioa**

Auzoetako edo udalerrietako bizi-baldintzak hobetzeko eta gizarte inklusiboago eta kohesionatuagoa bultzatzeko komunitatean egiten diren jarduerak dira.

## **Gardentasuna**

Administrazioek egiten dutena kontatzea, ezer ezkutatu gabe.

## **Garapen Jasangarriaren Helburuak**

2015. urtean munduko herrialdeetako gobernuek 15 urteko epean, hau da, 2030. urterainoko epean mundu jasangarri bat lortzeko adostutako 17 helburu dira.

Adibidez: pobreziarekin amaitzea, ingurumena zaintzea mundu osoan kalitatezko hezkuntza eskaintzea, edo bakea eta justizia bultzatzen dituzten gobernu sendoak izatea.

## **Genero berdintasuna**

Pertsona guztiek eskubide, baliabide eta aukera berberak izatea esan nahi du, emakume edo gizon diren kontuan hartu gabe eta errespetu berarekin tratatzea bizitzako arlo guztietan: lana, osasuna, hezkuntza...

## **Gobernantza**

Erakunde baten barruan erabakiak hartzeko eta betearazteko modua.

### Herritarren partaidetza

Pertsona guztiek Gobernuen politika eta erabaki publikoetan eragiteko duten eskubidea da.

Herritarrek modu independentean parte hartzeko bideak irekitzen ditu, administrazio publikoko edo alderdi politiko bateko kide izan beharrik gabe.

### Hizkuntza berdintasuna

Euskararen aldeko neurri bereziak hartzea, 2 hizkuntza ofizialen arteko berdintasuna bultzatzeko eta Gipuzkoako gizarteak euskararen erabilera sozialaren normalizazioaren alde duen konpromisoa indartzeko.

### Inklusioa

Pertsona guztiek, desberdinak izan arren, beraien eskubideak betetzea eta gizartean berdinean parte hartu ahal izatea.

### Kalitate demokratikoa

Erakunde publikoetan lan egitea herritar guztiek dituzten iritziak adierazteko eta parte hartzeko dituzten aukerak hobetzeko. Horretarako, beharrezkoak diren baliabideak jartzea.

### Komunitate demokratikoa

Baldintza berdinekin bizi, adierazi eta parte hartzeko aukera ematen duen pertsona taldea.

### Kontu-ematea

Administrazioek funtzioak ondo betetzen dituztela ziurtatzeko egiten duten guztia ebaluatu eta herritarrei kontatzea da.

### Markoa

Plan baterako strategiaren kontzeptuak garatzeko eta antolatzeko tresna bat da.

# 2024-2027 Herritarren Partaidetza Programa



## Zer da programa hau?

Gipuzkoako Foru Aldundiak, hemendik aurrera Aldundiak, datozen 4 urteetan, herritarren partaidetzaren eta ekintza komunitarioaren arloetan garatuko dituen helburuak eta lan-ildoak azaltzen dituen dokumentua da.

Beste erakunde eta eragileekin elkarlanean egin da.



## Zertarako behar dugu?

Herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa bultzatu nahi dira, herritarren ahotsa politika publikoetan presente egon dadin. Baita politikaren eta administrazio publikoen izaera eta kultura parte hartzaileagoa izateko ere.

Aldaketa horren bidez Aldundiak lortu nahi du ere erakunde aurre-hartzailea, ekintzailea eta **eraginkorra** izatea. Eta horrela **gubernantza** forma berriak ezarriko ditu: irekiagoak, gardenagoak eta lankidetzan oinarrituak.

Horrela ere, gizartearen arazo eta eskaerei erantzun eraginkorrak eskaini eta **komunitate demokratiko** sendoa sortu daitezke.

### Eraginkorra

Zerbait ondo egitea eta emaitza ona lortzea da.

### Gubernantza eta Komunitate demokratikoa

espresioak zer esan nahi duen ikusteko, joan 7. orrialdera.

Egungo gizartea **erronka** eta aldaketa asko bizitzen ari da, mundu mailan, krisi eta gatazka asko gertatzen ari dira. Erronka konplexu horiei erantzuteko administrazioek gaitasun mugatua dute. Baina lan hori herritarrekin batera egiten bada erantzun eraginkorragoak eta komunitate demokratikoagoak lor daitezke.

Horrekin guztiarekin, Aldundiaren lidergoa gero eta partekatuagoa izatea lortu nahi dugu bai herritar guztiekin, beste erakundeekin, zerbitzuekin eta profesionalekin.



## Nori zuzentzen zaio?

Aldundiko barne eta kanpo eragileei, Gipuzkoako udalei, elkarteei eta herritar guztiei zuzentzen zaio.

### Erronka

Lortzeko edo egoera zaila den zerbait eta gobernu edo pertsona batek betetzea helburu duena.



## Nork egin du programa hau?

2024-2027 Herritarren Partaidetza Programa hau Aldundiarena da eta bere departamentu guztietatik bultzatzen da.

Programa lankidetzan egin da, gure **egitura iraunkorren**, lurraldeko erakunde eta eragileen, eta baita herritarren parte hartzearekin ere.

Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusia programa honen prozesua gidatzeaz arduratu da.


**Egitura iraunkor** hauek Aldundiari ekintza komunitarioaren eta herritarren partaidetzaren gaietan laguntzen dioten organoak dira:

- **Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordea:** Aldundiko departamentu desberdinetako ordezkari politikoak biltzen ditu. Partaidetza eta ezarritako norabidea eta helburuak bideratzen eta hobetzen laguntzen digu.
- **Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseilua:** Herritarrak eta programaren gaietan adituak eta eragileak diren ordezkariak biltzen ditu. Aldundian aholkuak ematen dituen organoa da.
- **Herritarren Partaidetzarako Erakunde arteko Espazioa:** Udaletako ordezkari politiko eta teknikoak biltzen ditu. Aldundiarekin lankidetzan, lurraldean bultzatzen ditu ekintza komunitarioaren eta herritarren partaidetzaren politikak.
- **Elkarteen Foroa:** Elkarteetako ordezkariak biltzen ditu. Aldundiarekin lankidetzan, lurraldean partaidetza-kultura eta ekintza komunitarioa bultzatzen ditu, elkartegintza indartuz.





## Herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa: zer dira?



Herritarren partaidetza eskubidea eta tresna bat da herritarrek politika publikoetan parte hartzeko eta baita politiken diseinua, egitea eta ebaluazioa hobetzeko ere.

**Inklusibo** hitzak zer esan nahi dute ikusteko, joan 8. orrialdera.

Gizarteko eguneroko erronkei elkarrekin erantzuteko sortzen diren proiektu guztiak ekintza komunitarioa dira, hauek lortzeko egiten badira:

- Auzoetako eta udalerrietako bizi-baldintzak hobetzea.
- Gizarte **inklusiboagoa** eta elkartuagoa.
- Herritarrak protagonista eta aktibo izatea.



## Aldundiko partaidetza eredua

Aldundia 2010ean hasi zen partaidetza egituratzen.

Gaur egun 5/2018 Foru Araua dugu indarrean. Bertan jasotzen da herritarren partaidetza beharrezko tresna izan behar dela botere publikoek gizartean **gobernu onaren** bidetik jo dezaten.

Esku artean duzun hau, Aldundiaren 3. Herritarren Partaidetza Programa da eta 2023-2027 legealdian garatuko da.

### Gobernu ona:

Gobernatzeko modu eraginkorra da, gizartearen eta ekonomiaren garapenaren alde dituen baliabideak erabiltzen dituenena. Gainera, erakundeetan lan egiten duten pertsonen gardenak izan behar dute, kontuak eman, herritarren parte-hartzea bultzatu...



## Nola egin da programa?

2024-2027 Herritarren Partaidetza Programa garatzeko erreferentzia hauek hartu ditugu kontuan:

- Herritarren Partaidetzarako 5/2018 azaroaren 12ko Foru Araua.
- Ekintza komunitarioarako Aldundiaren eta lurraldeko udalen marko estrategikoa.
- 2019-2023 Herritarren Partaidetza Programaren ebaluazioan jaso ziren etorkizunerako erronka nagusiak.

Programa 2023-2027 legealdiko Aldundiaren Plan Estrategikoaren barruan dago eta planeko helburuak eta ekintzak garatzen laguntzen du.

Plan Estrategikoak lau funtsezko zutabe ditu, eta programak lotura zuzena du ondorengo biekkin:

- Pertsonen ongizatea, osasuna, babesa eta berdintasuna.
- Komunitate demokratikoa, arduratsua, **jasangarria** eta bizia.

**Jasangarria** da dauden baliabideekin denboran zehar mantendu daitekeena.



## Programaren ezaugarriak eta balioak

Balioak pertsonaren edo pertsona-talde baten jokatzeko printzipioak dira.

Partaidetza programak dituen ezaugarri eta balio horiek gauzak egiteko moduetan eragin baliagarria dute. Gainera, Partaidetza Programa garatzen eta lehenetsunak ezartzen lagundu digute.

Hauek dira programaren ezaugarriak eta balioak:

### Gertutasuna eta konfiantza

Gauzak egitea oso garrantzitsua da, baita nola egiten diren zaintzea ere. Horregatik, egiteko moduei arreta berezia eman nahi diegu Gipuzkoako Foru Aldunditik.

Hori dela eta, herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa lurraldean gauzatzeko udaletara gerturatzen gara, dituzten beharrak eta kezkak entzuten ditugu eta baliabide desberdinak eskaintzen dizkiegu.

### Irekia eta malgua

Programa honek irekia, malgua eta eraginkorra izan nahi du, aldaketarako baliabideak eskaintzeko eta eguneroko kudeaketan laguntzeko. Gizartearen errealitatera egokitu nahi dugu, elkarrekin batera, herritarrentzat eta herritarrekin lan egiteko.

### Balio erantsia

Ikasten duen erakundea gara eta herritarren partaidetzaren kalitatea hobetu nahi dugu. Hori lortzeko, aurretik egindakoa ebaluatuko dugu, hobekuntzak egingo ditugu eta berriz ebaluatuko dugu.

### Hartu-emana

Ikasten duen erakundea izateko 2 norabidetan lan egin behar dugu:

- baliabide eta kanalak eskaini
- ikasten duguna barneratu.

Horrela egiten duguna eta garena ondo ezagutuko dugu eta hobeto antola gaitzke.

### Koherentzia eta bizipoza

Aldundian partaidetzaren kultura zabaltzeko, erakundearen barruan ere lan egin behar dugu, horrela **koherente izango** gara-eta. Gainera, gure lana maite dugulako, hau guztia bizipozez egingo dugu, eskatzen zaigun erritmoari entzunez eta elkar zainduz.

**Koherente izatea**  
Pentsatzen duena edo dituen balioen arabera jokatzeko duena.





## Nola egituratu da programa?

Partaidetza programa honen norabidea komunitateen eta erakundeen **kalitate demokratikoan** sakontzea da.

Norabide hori lortzeko, 2 zutabe ditu:

- **Ekintza komunitarioa:** herritarren taldeko inplikazioa eta protagonismoa bilatu eta erraztu nahi dugu. Horrela, denon artean, pertsonen bizi baldintzak hobetuko dira eta gizarte inklusiboa eta kohesionatua eraikiko dugu.
- **Herritarren partaidetza:** herritarrek erabakietan parte hartzeko duten eskubidea aitortu eta ziurtatu nahi dugu. Horrela, administrazioaren egiteko eta erlazionatzeko moduak aldatuko dira.

Norabide eta zutabe horiek errealitate bihurtzeko **5 helburu, 15 lan-ildo eta 47 ekintza** definitu ditugu, 2023-2027 legealdian zehar garatzeko.

**5 helburu horiek dira:**



### 1. Ekintza komunitarioa indartzea.

Aldunditik eta toki erakundeetatik ekintza komunitario hori errazten delarik.



### 2. Erakundeak prestatzea eta lurraldean praktika parte hartzaileak zabaltzea.

Erakundeen barneko antolamendua birpentsatzea herritarrei entzunez bi modutan lan egiteko:

- erabakiak hartu baino lehen herritarrei galdetu
- herritarrei entzun erabakiak hartzerakoan.

### Kalitate demokratikoa

espresioak zer esan nahi duen ikusteko, joan 8. orrialdera.



### 3. Partaidetzaren kalitatea hobetzea:

- Emakume eta gizonezkoek berdintasun parte-hartzaileak.
- Herritar guztiek desberdinak izanik libre eta segurtasunez hitz egin ahal eta entzunak izatea.
- Erakunde publikoen **etika** eta gardentasunarekin.

### Etika

Giza portaera arautzen duen printzipio eta arau moralen multzoa.



### 4. Partaidetza kultura eta ekintza komunitarioa bultzatzeko **trebakuntza eskaintzea.**

**Gipuzkoako Eskola Irekiaren (GEI)** bidez Aldundiko langile guztiei, udalei, herritar erakundeei eta herritarrei ere.



### 5. Partaidetza kultura eta ekintza komunitarioa bultzatzeko **komunikazioa eta hedapena.**

Herritar informatuagoak eta komunitate inklusiboago eta parte-hartzaileagoak izateko.

### Gipuzkoako Eskola Irekia (GEI)

Gaitasunak hobetzeko baliabideak eskaintzen ditu, eragile desberdinek politika publikoan hartzen diren erabakietan eragin ahal izateko eta hobetzeko.

Baliabide horietako batzuk dira: jardunaldiak, ikastaroak, saio parte-hartzaileak, topaketak, elkarrizketa publikoak, laborategiak, ikerketak...



# Programaren helburuak, lan-ildoak eta ekintzak

Partaidetza Programak herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa gauzatzeko **5 helburu, 15 lan-ildo eta 47 ekintza ditu.**

## 1. Ekintza komunitarioa



### Zer lortu nahi dugu?

Herritarren elkarlana eta parte hartzea bultzatzea komunitate demokratikoa, arduratsua, jasangarria eta bizia izateko.

### Zergatik egiten dugu?

Jendeak harremanak eta loturak sortzeko duen gaitasun indartu nahi dugu, herritarrek elkarrekin bizitza hobetzeko gauzak egin ditzaten.

Helburu dugun gizartea pertsona autonomo eta arduratsuz osatzen da eta gainera, pertsona horiek gizartean konprometituta daude.



## Zer egingo dugu?

Hauek dira lehenengo helburu hau betetzeko ditugun lan-ildoak eta ekintzak:

- 1.1. Elkarteen proiektuak eta herritar antolatuen gaitasunak indartzea:**
  - Elkarreak sortzeko eta elkarrekin laguntzeko tresnak eta baliabideak garatu.
  - Elkarreen eta herritarrek elkarrekin egindako proiektuen balio eta kudeaketa demokratikoa indartzeko tresnak eskaini.
  - Erakunde publikoen eta komunitatearen arteko lankidetzak garatu eta elkarte eta erakunde publikoen arteko loturak indartu.
  - Herritar antolatuen gaitasuna hobetu partaidetzarako kanalak bultzatu.
- 1.2. Antolatu gabeko herritarrekin eta herritarrentzat lan egitea:**
  - Testuinguruak erraztu herritarren arteko harremanak sortzen eta taldean jarduten laguntzeko, zerbitzu espazio edo jardueren bidez.
  - Zerbitzu publikoak eta hurbiltasuneko ekipamenduek antolatu gabeko herritarrengana iristeko praktikak ikusarazi eta baliabideak eskaini.
  - Ikuspegi juridikoa sinplifikatu, ekipamendu publikoak herritarrekin batera kudeatzea edo **auzolana** bezalako herritarren ekimenak errazteko.

### **Auzolana**

Euskal gizartearen lan egiteko modu bat da. Herritarrek elkarrekin lan egiten dute komunitatearentzat onuragarri izango den zerbait lortzeko.

**1.3.** Ekintza komunitarioaren **markoa** garatzen jarraitzea eta toki mailan garatzeko estrategiak martxan jartzea:

- Ekintza komunitarioaren markoa udaletara eramateko gogoetak bultzatu eta udal bakoitzaren errealitatera egokitu.
- Ekintza komunitarioa bultzatzeko estrategiak eta praktikak bultzatu, sistema antolatu eta partekatu.
- Udaletako zerbitzu eta ekipamenduetan ikuspegi komunitarioa sartzen lagundu.
- Komunitatea indartzeko proiektuak zuzenean bultzatu eta udalei parte hartzeko aukera eman.
- Ikuspegi zabala eskaini, udalen artean elkartasuna, estrategia eta baliabideak partekatzeke. Bereziki herri txikiak indartu.

**1.4.** Politiketara **ikuspegi komunitarioa** txertatzea:

- Aldundiko departamentu ezberdinekin elkarlanerako espazioak sortu, politiketara ikuspegi komunitarioa barneratu dezaten.

**1.5.** Erakunde barruan eta erakundeen artean **elkarlanean** aritzea:

- Aldundi barruan eta lurraldeko erakunde eta eragileekin lankidetzan aritu begirada berarekin, proiektu zehatzen bitartez.

**Markoa**  
hitzak zer esan nahi duen ikusteko, joan 8. orrialdera.

## 2. Erakundeak prestatzea



### Zer lortu nahi dugu?

Administrazio publikoko lanaren antolaketa berria, ez hain sektorekatua, hau da, ez gai desberdin eta askotan banatua.

Horrela, Aldundiak lortu dezake:

- Lidergo hobea izatea.
- Eraginkorrago izatea.
- Langileen parte hartze eta lankidetzaren handiagoa izatea erabakiak hartzerakoan.
- **Berrikuntza** bultzatzea eta esperimentatzea.

Gainera, herritarren partaidetzarako praktikak lurraldean zabaldu nahi dira komunitate eta erakundeen kultura demokratikoa indartzeko.

**Berrikuntza**  
Zerbaitetan berritasuna ekartzen dituzten aldaketak. Gauzak modu ezberdinean egitea.



### Zergatik egiten dugu?

Beharrezkoa da administrazio publikoen zeregina pentsatzea eta berrantolatzea herritarrekin eta eragileekin hobeto erlazionatzeko.

Gainera, lan hori ikuspegi komunitarioa eta herritarren partaidetza ardatz hartuta egin behar da.



## Zer egingo dugu?

### 2.1. Aldundiko **partaidetzaren araudia** garatzen jarraitzea:

- Herritarren partaidetzako 5/2018 Foru Arauaren kanpo ebaluazioa egin eta egokitu.
- Herritarren partaidetzarako araudia garatu eta prozedurak zehaztu.
- Herritarren Partaidetza Programa egin, jarraipena, hedapena eta ebaluazioa eginez.

### 2.2. Herritarren **parte hartzea ahalbidetzeko**, prozesu, organo eta jarduerak berrikusteko eta ziurtatzeko sistemak sortzea:

- Herritarren ekimena eta parte hartzea piztu dadila erraztu.
- Parte-hartzeko kanalak antolatu eta garatu.
- Estrategia eta metodologiak indartu, Aldundiko politika publikoetan herritarren partaidetza presente egon dadin.
- Aldundiko departamentu, zuzendaritza eta zerbitzu desberdinekin lan egin, hizkuntza eta begirada bera izateko.

### 2.3. Aldundiko politika publikoetan

#### **herritarren partaidetza praktikak** gehiagotzea:

- Aurrekontu irekiak berriz definitu eta bultzatu.
- Aldundiko politikak herritarren partaidetzarekin egin.
- Laguntza teknikoa eta ekonomikoa, eta aholkularitza eskaini, esperientziak gehiagotzeko eta anitzak izan daitezen.

### 2.4. Lurraldeko udalekin batera, **udaletan partaidetza** egituratzea:

- Udalerrietan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea (LILE legea) garatu behar dela ezagutarazi eta baliabideak eskaini.
- Udalekin legealdirako plangintza **estrategikoa** garatu, urteroko jarduera-planen bitartez.
- Udalei laguntza teknikoa eta ekonomikoa, eta aholkularitza eskaini.
- Gipuzkoako 2.500 biztanletik beherako udalerrientzako estrategia zehatza garatu.

#### **Estrategikoa**

Zer bait garatzeko oinarritzkoa, garrantzitsua dena. Estrategia bat jarraitzen duena.



## 3. Partaidetzaren kalitatea



### Zer lortu nahi dugu?

Administrazioek duten egiteko eta erlazionatzeko moduak aldatzea, herritarrek erabakietan parte hartzeko duten eskubidea aitortuta eta ziurtatuta.

### Zergatik egiten dugu?

Udalekin, elkarteekin eta beste erakundeekin elkarlanean egiteko moduak aldatu nahi ditugulako. Eta praktika parte hartzaile gehiago egiteaz gain horien kalitatea zaindu nahi dugulako.

Hori, honako printzipio hauekin egingo dugu:

- Herritar guztiek parte hartuko dute.
- Emakumeek eta gizonek berdin parte hartu ahal izango dute.
- Pertsona guztiek, desberdinak izanik, pentsatzen eta nahi dutena esan eta parte hartu ahal izango dute.
- Administrazioetatik proposatu eta erabakitzen duguna argi kontatu eta egiten dena ebaluatuko da.



## Zer egingo dugu?

### 3.1. Lurraldeko kalitate demokratikoa indartzeko lan egitea:

- Politika publikoak modu parte hartzailean garatzen direla ziurtatzeko ebaluazio sistemak sortu. Partaidetza esperientzien emaitza eta eragina neurtu eta komunikatu.
- Herritarren aniztasuna kudeatu eta parte hartzeko dauden oztopoak gainditzeko estrategiak landu, politika publikoak modu parte hartzailean garatzeko.
- Kalitate demokratikoa indartzeko lan egin, Gizarte Kontseiluaren gomendioak jarraituta.
- Berrikuntza eta ikerketarako **Gizarte-laborategiak** bultzatu, herritarren zientzian oinarrituta.

### 3.2. Aliantza eta sareak indartzea eta berriak eraikitzea kalitate demokratikoa hobetzeko:

- Aldundiko partaidetza **egitura iraunkorrak** kudeatu eta zaindu eta elkarrekin lan egiteko akordioak sortu.
- Partaidetzarako elkarlana eta sare lana zaindu eta zabaldu eragileekin, baita nazioartean ere.
- Gertuko harremanak eta elkarlanerako dinamikak bultzatu, egiteko moduetan arreta jarrita.

#### Gizarte-laborategiak

Ikertzeko, berritzeko eta esperimentatzeko tokiak dira. Herritarrek modu aktiboan parte hartzen dute gizartearen benetako arazoei erantzuna emateko.

#### Egitura iraunkor

horiek zein diren eta zer lan egiten duten ikusteko, joan 7. orrialdera.



## 4. Trebakuntza eskaintzea



### Zer lortu nahi dugu?

- Herritarren partaidetza eta ekintza komunitarioa ulertzeko moduari zentzua ematea.
- Elkarrizketa publikoa ahalbidetzea.
- Trebakuntza eskaintzea gaitasunak garatu eta ezagutza sakontzeko.
- Esperimentatzea: elkarlanean, negoziazioan eta akordioetan hobeto aritzeko.
- Sistema bat antolatzea, esperientzia eta praktika onak jasota.
- Saretzea, eragileen arteko aliantzak eta lankidetzak sortzeko.

Horretarako, Gipuzkoako Eskola Irekia egonkortu nahi dugu, eskaintza zabaldu eta pertsona gehiagorengana iritsi.

### Zergatik egiten dugu?

Eragile desberdinen aukerak gehiagotu eta gaitasunak hobetzeko baliabideak eskaini nahi ditugulako. Horrela, eragile horiek politika publikoan hartzen diren erabakietan ahalmen handiagoa izango dute eta hartzen diren erabakiak hobeak izango dira.

Horrek guztiak, gainera, demokrazia hobe izaten eta gizartearen elkartasuna hobetzen lagunduko du.

## Zer egingo dugu?

### 4.1. Partaidetza kultura indartzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea:

- Aldundiarentzat, udalentsat, elkarteentzat eta herritarrentzat urteko prestakuntza prestatu eta eskaini.
- Partaidetza kultura praktikara ekartzeko, espazioak sortu eta baliabideak eskaini.
- Udarako ikastaroetan metodologia parte hartzaileak erabili, UIK Topagune hitzarmenaren baitan.

### 4.2. Ekintza komunitarioa bultzatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea:

- Aldundiarentzat, udalentsat, elkarteentzat eta herritarrentzat urteko prestakuntza prestatu eta eskaini.
- Ekintza komunitarioa gauzatzeko espazioak sortu eta baliabideak eskaini.





## 5. Komunikazioa eta hedapena



### Zer lortu nahi dugu?

Ekintza komunitariorako eta partaidetzarako dauden aukerak eta bideak ezagutzera ematea.

Horretarako, komunikazio plan bat egitea lurraldeko esperientzia eta ezagutzak ikusgarri eta eskuragarri jartzeko, eta publiko mota guztietara iritsi ahal izateko.

Aldi berean, herritarrei eduki eta baliabideak eskaintzea elkarren arteko harremana eta lankidetzaren indartzeko aukerak ezagutu ditzaten.

Publiko mota guztietara iristeko komunikazioa **egitura iraunkorren** bidez egingo da.

### Zergatik egiten dugu?

Herritarrei ekintza komunitariorako ekimenen berri emateko eta partaidetzarako dituzten eskubideak ezagutarazteko. Baita gobernantzari buruzko kontzeptu zailak argitzeko edo ulergarriago egiteko ere.

#### Egitura iraunkor

horiek zein diren eta zer lan egiten duten ikusteko, joan 7. orrialdera.



### Zer egingo dugu?

#### 5.1. Gobernu Oheko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritzako komunikazio plana egitea eta martxan jartzea

herritar guztiei zuzenduta, eduki irakurterraz eta irisgarriekin.

- Zuzendaritza ezagutzera eman, Aldundi barruan eta kanpoan. Informazio esanguratsuen eguneratuta eskaini, bai aurrez aurreko arretan eta baita modu digitalean ere.
- Partaidetza **egitura iraunkorren** gomendioak eta praktika onak zabaldu.
- Herritarrek partaidetzarako dituzten eskubideak zabaldu.
- Aldundiak politika publikoetan hartzen dituen erabaki garrantzitsuen berri eman.
- Aldundiak herritar eta elkarteentzako informazioa modu ulerterrazean eta irisgarrian eman.

#### 5.2. Lurraldeko esperientzia eta ezagutzak ezagutaraztea.

- Herritarren partaidetzaren eta ekintza komunitarioaren lurraldeko praktika onak jaso eta zabaldu. Gidak eta **Geolokalizazio mapa** zabaldu.
- Lurraldeko esperientzien datu-basea sortu.

#### Geolokalizazio Mapa

Gipuzkoako udalek, elkarteek eta Aldundiak berak burututako partaidetza eta ekintza komunitarioen proiektuen informazioa ematen duen mapa da. Mugikor edo ordenagailu bidez ikus daiteke.



## Programaren ebaluaketa eta kontu-ematea

Ebaluaketa eta kontu-ematea beharrezkoa da 2024-2027 Herritarren Partaidetzarako Programaren helburuak eta ekintzak betetzen direla ziurtatzeko eta programa egokitzen eta hobetzen joateko.

Gainera, **gardentasuna** oso garrantzitsua da eragile guztien artean konfiantza eraiki eta mantentzeko.

Programaren ebaluazioa eta kontu-ematea modu parte-hartzailean egiten ditugu, horrela eragile guztiek jakin ahal izango dute programaren helburu, lan-ildo eta ekintzak nola betetzen ditugun.

Bestalde, ebaluazioan arreta berezia jarriko dugu ikasten dugun zuzendaritza garela neurtzen duten ataletan.

Ebaluazioak honetarako balioko du:

- Benetan ikasten ari garela ziurtatzeko.
- Ikasten jarraitu behar duguna ezagutzeko.

### Nola ebaluatuko da programa?

Programako helburuak betetzen direla neurtzeko jarraipen sistema bat dugu. Horretarako, helburuen eta lan-ildoan adierazleen sistema zehazten da, jarraipena egin ahal izateko.

Urtero Partaidetza Programaren **kudeaketa plana** egiten eta ebaluatzen dugu.

Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritzak egiten ditu plan horiek.

Plan horiek Programaren ebaluazioa egiten laguntzen digute.

**Gardentasuna** hitzak zer esan nahi duen ikusteko, joan 7. orrialdera.

Kudeaketa plan horietan lan-ildoak betetzeko urteko **ekintza** zehatzak daude:

- Ekintzak 3 mailetan sailkatuko dira:
  - estrategikoak
  - garrantzi handikoak
  - erdi-mailako garrantzia dutenak.
- Ekintza horiek betetzen diren eta nola betetzen diren jakiteko mota desberdinetako datuak jasoko dira.
- Ebaluatuko dugu ere Gipuzkoako Foru Aldundiaren printzipio hauek betetzen dituzten:
  - **genero berdintasuna**
  - **hizkuntza berdintasuna**
  - **Garapen Jasangarriaren Helburuak.**

Horrek guztiak balioko du programaren kudeaketa, behar denean, egokitzen joateko.

### Nola egingo da kontu-ematea?

Urtero **kontu-ematea** egingo dugu eta emaitzak urteko partaidetza memorian bilduko dira.

Horretarako, gure **egitura iraunkorrekin**

elkarlanean arituko gara:

- Herritarren Partaidetzarako Foru Batzordeak ezarri ditugun norabidea eta helburuak bideratzen eta hobetzen laguntzen digu.
- Herritarren Partaidetzarako Gizarte Kontseiluak programa betetzeko aholkuak ematen dizkigu.

**Hitz horiek** zer esan nahi duen ikusteko, joan 7. orrialdera.

**Egitura iraunkor** horiek zein diren eta zer lan egiten duten ikusteko, joan 7. orrialdera.

# 1. Eranskina

Aldundiko departamentuek proposatutako partaidetza proiektuak.

Departamentua	Zuzendaritza edo Zerbitzua	Proiektuaren izena	Aurreikusitako epealdia
Diputatu Nagusia	Estrategia Zuzendaritza Nagusia	Lankidetzazko gobernantzari buruzko gogoeta partekatua Aldundian	2024
		Etorkizuna Eraikiz Think Tank berria	2024
	Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Organoa	Berdintasunerako 4. Foru Plana	2024
		GUNEA Espazioan, Berdintasunaren aldeko Gipuzkoako emakume elkarteekin Partaidetza prozesua	2024
	Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusia	BADALAB	2024-2025
		GIPUZKOA ARIGUNE Proiektu estrategikoa	2024-2025
Zainketa eta Gizarte Politiketako Departamentua	Agenda, Berrikuntza eta Ebaluazioa	Kasu Konplexuak pertsonalizatzeko eta artatzeko Zeharkako Batzorde Teknikoa abian jartzeko prozesu parte-hartzailea	2024-2025
		Modernizazio, Digitalizazio eta Hobekuntzako Zeharkako Batzorde Teknikoa abian jartzeko barne-prozesu parte-hartzailea	2024-2025
Gobernantza	Araubide Juridikoko Zuzendaritza Nagusia	Enpresa txiki eta ertainen kontrataziorako laguntza zerbitzua	2025
	Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritza Nagusia	Foru Arauaren ebaluazioa	2024-2025
		Aurrekontu Irekiak Aldundian bir-diseinatze eta abiatzeko prozesua	2024-2025
		IDEIAK, Mugaz gaindiko proiektuak sustatzeko prozesua	2024-2025
	Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritza	Plan Estrategikoaren garapena	2024

Departamentua	Zuzendaritza edo Zerbitzua	Proiektuaren izena	Aurreikusitako epealdia
Mugikortasuna, Turismoa eta Lurralde Antolaketa	Mugikortasuna eta Garraio Publikoko Zuzendaritza	Garraio publiko emakidak berritzea	2024
		Lurraldebus inkesta	2025
	Lurralde Antolaketako Zuzendaritza Nagusia	Lurralde planak: Goierri eta Urola	2024
		Ondareko 1996ko araua aldatu: Uztailaren 9ko 8/96 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Ondarearena.	2026
	Aldundiak behar ez duen ondarea egoki kudeatzeko foroak	2024	
Lurralde Oreka Berdea	Nekazaritzako eta Lurralde Orekako Zuzendaritza Nagusia	OB GUNEA (Oreka Berdeko Erreferentzia Gunea)	2024
		Aholku Batzorde desberdinen azterketa eta bateratzea	2024
		Baserritar Misto Profesionala	2024-2027
		Gipuzkoako Herritarren Batzarra: kontu ematea eta ebaluazioa	2024-2027
		Mugikortasun autonomoa pilotua landa-eremuan	2024
Kultura, Lankidetzak, Gazteria eta Kirola	Kultura Zuzendaritza Nagusia	Kultura Eskola Programaren balorazioa	2024
	Gazteria Zuzendaritza Nagusia	Gazte plaza txo!	2024-2027
		Gaztematika sarea	2024-2027
	Kirol Zuzendaritza Nagusia	Jatorri anitzeko emakumeen gizarte-inklusioko jardueren fisiko edo kirolaren bidez sustatzeko esku-hartzeen printzipioen dekalogo	2024
		Gipuzkoako Eskola Kiroleko Programa	2024-2025
		Gipuzkoako eskola adineko jardueren fisikoari eta kirolari buruzko Foru Dekretua egiteko partaidetza prozesua	2025
		Mugimint Gipuzkoa	2024-2026
	Eskola Kirola Inklusiboa (EKI) eta Eskola Kirola Egokitua (EKE)	2024-2025	

## 2. Eranskina

Herritarren Partaidetza Programaren egutegia eta lehentasun-mailak.

### 1. Ekintza komunitarioa



Lan-ildoa	Ekintza	Lehentasuna	2024	2025	2026	2027
<b>1.1. Elkarteen proiektuak eta herritar antolatuen gaitasunak indartzea.</b>	Elkarreak sortzeko eta elkarrekin laguntzeko tresnak eta baliabideak garatu.	Altua				
	Elkarrekin eta herritarrek elkarrekin egindako proiektuen balio eta kudeaketa demokratikoa indartu.	Erdi-baxua				
	Erakunde publikoen eta komunitatearen arteko lankidetzak garatu eta elkarte eta erakunde publikoen arteko loturak indartu.	Erdi-altua				
	Herritar antolatuek partaidetzarako tresnen bidez eragile eta dinamizatzaile izateko duten gaitasuna handitzeko baliabideak eman.	Erdi-altua				
	Herritarren arteko harremanak eta ekintza kolektiborako aukerak erraztu zerbitzu, espazio edo jardueren bidez.	Erdi-baxua				
<b>1.2. Antolatu gabeko herritarrekin eta herritarrentzat lan egitea.</b>	Zerbitzu publikoak eta hurbiltasuneko ekipamenduek antolatu gabeko herritarrengana iristeko praktikak ikusarazi eta baliabideak eskaini.	Altua				
	Ikuspegi juridikoa sinplifikatu, ekipamendu publikoak herritarrekin batera kudeatzea edo auzolana bezalako herritarren ekimenak errazteko.	Erdi-altua				

Lan-ildoa	Ekintza	Lehentasuna	2024	2025	2026	2027
<b>1.3. Ekintza komunitarioaren markoa garatzen jarraitzea eta toki mailan garatzeko estrategiak martxan jartzea.</b>	Ekintza komunitarioaren markoa udaletara eramateko gogoetak bultzatu eta udal bakoitzaren errealitatera egokitu.	Altua				
	Ekintza komunitarioa bultzatzeko estrategiak eta praktikak bultzatu, sistematizatu eta partekatu.	Altua				
	Udaletako zerbitzu eta ekipamenduetan ikuspegi komunitarioa sartzen lagundu.	Altua				
	Komunitatea indartzeko proiektuak zuzenean bultzatu eta udalei parte hartzeko aukera eman.	Erdi-altua				
	Ikuspegi zabala eskaini, udalen artean elkartasuna, estrategia eta baliabideak partekatzeko. Bereziki herri txikiak indartu.	Altua				
	<b>1.4. Politikan ikuspegi komunitarioa txertatzea.</b>	Aldundiko departamentu ezberdinekin elkarlanerako espazioak sortu, politikan ikuspegi komunitarioa barneratu dezaten.	Altua			
<b>1.5. Erakunde barruko eta erakunde arteko elkartasuna sortzea.</b>		Aldundi barruan eta lurraldeko erakunde eta eragileekin lankidetzan aritu proiektu zehatzen bitartez.	Erdi-altua			

## 2. Erakundeak prestatzea



Lan-ildoa	Ekintza	Lehentasuna	2024	2025	2026	2027
<b>2.1. Aldundiko partaidetzaren araudia garatzen jarraitzea.</b>	Herritarren partaidetzako 5/2018 Foru Arauaren kanpo ebaluazioa egin eta egokitu.	Altua				
	Herritarren partaidetzarako araudia garatu eta prozedura zehaztu.	Erdi-altua				
	Herritarren Partaidetza Programa egin, jarraipena, hedapena eta ebaluazioa eginez.	Altua				
<b>2.2. Herritarren parte hartzea ahalbidetzeko, prozesu, organo eta jarduerak berrikusteko eta ziurtatzeko sistemak sortzea.</b>	Herritarren ekimena eta parte hartzea piztu dadila erraztu.	Erdi-altua				
	Parte-hartzeko kanalak antolatu eta garatu.	Erdi-altua				
	Estrategia eta metodologiak indartu, Aldundiko politika publikoetan herritarren partaidetza presente egon dadin.	Altua				
	Aldundiko departamentu, zuzendaritza eta zerbitzu desberdinekin lan egin, hizkuntza eta begirada bera izateko.	Erdi-altua				
<b>2.3. Aldundiko politika publikoetan herritarren partaidetza praktikak gehiagotzea.</b>	Aurrekontu irekiak berriz definitu eta bultzatu.	Altua				
	Aldundiko politikak herritarren partaidetzarekin egin.	Altua				
	Laguntza tekniko eta ekonomiko eta aholkularitza eskaini, esperientziak gehiagotzeko eta anitzak izan daitezzen.	Altua				

Lan-ildoa	Ekintza	Lehentasuna	2024	2025	2026	2027
<b>2.4. Lurraldeko udalekin batera, udaletan partaidetza egituratzea.</b>	Udalerrietan Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea (LILE legea) garatu behar dela ezagutarazi eta baliabideak eskaini.	Erdi-altua				
	Udalekin legealdirako plangintza estrategikoa garatu, urteroko jardueraren bitartez.	Altua				
	Udalei laguntza tekniko eta ekonomiko eta aholkularitza eskaini.	Altua				
	Gipuzkoako 2.500 biztanletik beherako udalerrientzako estrategia zehatza garatu.	Altua				

### 3. Partaidetzaren kalitatea



Lan-ildoa	Ekintza	Lehentasuna	2024	2025	2026	2027
<b>3.1. Lurraldeko kalitate demokratikoa indartzeko lan egitea.</b>	Politika publikoak modu parte hartzailean garatzen direla ziurtatzeko ebaluazio sistemak sortu. Partaidetza esperientzien emaitza eta eragina neurtu eta komunikatu.	Erdi-baxua				
	Herritarren aniztasuna kudeatu eta parte hartzeko dauden oztopoak gainditzeko estrategiak landu, politika publikoak modu parte hartzailean garatzeko.	Erdi-altua				
	Kalitate demokratikoa indartzeko lan egin, Gizarte Kontseiluaren gomendioak jarraituta.	Altua				
	Berrikuntza eta ikerketa sozialerako laborategiak bultzatu, herritarren zientzian oinarrituta.	Erdi-baxua				
	Aldundiko partaidetza egitura iraunkorrak kudeatu eta zaindu eta elkarrekin lan egiteko akordioak sortu.	Altua				
<b>3.2. Aliantza eta sareak indartzea eta berriak eraikitzea kalitate demokratikoa hobetzeko.</b>	Partaidetzarako elkarlana eta sare lana zaindu eta zabaldu eragileekin, baita nazioartean ere.	Erdi-altua				
	Gertuko harremanak eta elkarlanerako dinamikak bultzatu, egiteko moduetan arreta jarrita.	Altua				

### 4. Trebakuntza eskaintzea



Lan-ildoa	Ekintza	Lehentasuna	2024	2025	2026	2027
<b>4.1. Partaidetza kultura indartzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea.</b>	Aldundiarentzat, udalentsat, elkarreentzat eta herritarrentzat urteko prestakuntza prestatu eta eskaini.	Altua				
	Partaidetza kultura praktikara ekartzeko, espazioak sortu eta baliabideak eskaini.	Altua				
	Ikastaroetan metodologia parte hartzaileak erabili, UIK Topagune hitzarmenaren baitan.	Erdi-altua				
<b>4.2. Ekintza komunitarioa bultzatzeko baliabideak eta tresnak eskaintzea.</b>	Aldundiarentzat, udalentsat, elkarreentzat eta herritarrentzat urteko prestakuntza prestatu eta eskaini.	Altua				
	Ekintza komunitarioa gauzatzeko espazioak sortu eta baliabideak eskaini.	Altua				



## 5. Komunikazioa eta hedapena



Lan-ildoa	Ekintza	Lehentasuna	2024	2025	2026	2027
<b>5.1. Gobernu Oneko eta Berrikuntza Politiko-sozialeko Zuzendaritzako komunikazio plana egitea eta martxan jartzea herritar guztiei zuzenduta, eduki irakurterraz eta irisgarriekin.</b>	Zuzendaritza ezagutzera eman, Aldundi barruan eta kanpoan. Informazio esanguratsuena eguneratuta eskaini, bai aurrez aurreko arretan eta baita modu digitalean ere.	Altua				
	Partaidetza egitura iraunkorren gomendioak eta praktika onak zabaldu.	Altua				
	Herritarrek partaidetzarako dituzten eskubideak zabaldu.	Erdi-altua				
	Aldundiak politika publikoetan hartzen dituen erabaki garrantzitsuen berri eman.	Erdi-baxua				
	Aldundiak herritar eta elkarreentzako informazioa modu ulerterrazean eta irisgarrian eman.	Erdi-baxua				
<b>5.2. Lurraldeko esperientzia eta ezagutzak ezagutaraztea.</b>	Herritarren partaidetzaren eta ekintza komunitarioaren lurraldeko praktika onak jaso eta zabaldu. Gidak eta Geolokalizazio mapa zabaldu.	Altua				
	Lurraldeko esperientzien datu-basea sortu.	Erdi-altua				

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---

---





**GIPUZKOA**  
Foru Aldundia • Diputación Foral



HERRITARREN  
PARTAIDETZA



Erraz irakurtzeko  
testuak